

# 3. Unitatea

## Merkatu ikerketa



# Nork nahi du gure produktua?



Mezu  
berri bat  
duzu



Gmail

Buscar correo

GSuite



1-50 de 7216

Jarri bere lekuan! Recibidos

Pili Diez  
para mí

9:30 (Hace 5 min)

Kaixo!

Gogoan duzu negozio-ideia bat duzula esateko baldintzetako bat dela “zure bezeroak nortzuk diren” galderari erantzuten jakitea?.

Funtsezkoa da galdera horri erantzutea; izan ere, unitate honetan merkatu-azterketa bat egin beharko duzu, erabakiak hartzen laguntzeko bezeroari buruz behar duzun informazio guztia biltzeko.



Zure bezeroa nor den jakiteko zailtasunak izan badituzu, [BIDEO](#) bat erantsi dizut, merkatuko segmentazio bat nola egin azaltzen dizuna zure xede-publikoa identifikatzeko.

Eta [ERRONKA](#), dinamika bat proposatzen dizut merkatu-azterketa egin ahal izateko.

Aurrera goaz!

\* **Oharra:** “Gogoratu beti emangarri guztiak [Ekingune](#) plataformara igotzen”.


2 Fitxategi

3. ERRONKA “World Café”



Responder

Reenviar





# Erronka



## Dinamika World Café

*Merkatu-azterketa bat egiteko tekniketako bat elkarriketa pertsonala da. Erronka bezala proposatzen dizut: "benetako" bezeroekin elkarriketak egin aurretik, egin simulazio bat ikasgelan zure ikaskideekin.*

*Dinamika World Café erabiltzen egin dezakezu. Dinamika honetan, parte-hartzaileek "munduan zehar bidaiatzeko" eta zuen ideiak mahai batetik bestera eramateko aukera izango duzue.*

**Adibide batekin azalduko dizut nola gauzatu.**

Demagun zure gelan lau talde dituzula: hiru pertsona talde bakoitzean. Talde bakoitzak negozio-ideia desberdin bat landuko du bere mahaian. (*Egokitu argibide hauek parte hartuko duzuen pertsonen kopuru zehatzari*).

Dinamikarekin hasi aurretik eskatuko duzu:

### 2 pertsona

Horiek izango dira "*munduan zehar*" bidaiatuko duten pertsonak, eta bezeroen papera hartuko dute iristen diren mahaian.



### Pertsona 1

mahaiko "*idazkaria*" izango dena.

Dinamika World Café, **10 minutuko hiru elkarriketa-erronda** izango da, eta ondoren **taldekako sintesia**.

Txanda bakoitzean, mahai bakoitzeko arduradunak, hiru boluntarioak bidaliko ditu beste hiru taldeetara (*pertsona bat talde bakoitzera*).



Modu honetan, **TALDE BAKOITZEAN 3 PERTSONA** egongo dira:

- **Taldeko pertsona bat izango** da elkarriketak egingo dituenak, aldeztu aurretik zuen bezeroari buruzko informazioa biltzeko idatziko dituzuen galdera batzuen bidez.
- Iritsi diren eta **bezeroen papera** ordezkatu beharko duten **bi pertsona**; taldeko beste pertsonak elkarriketa egingo die.



### ERRONDA BAKOITZEAN KOMENI DA:

1. Galderekin hasi aurretik, talde bakoitzeko idazkariak adieraziko die iritsi diren hiru pertsonari zer bezero-rol ordezkatu beharko duten (Canvas-en zehaztutako bezero-segmentuen artean aukeratuko du).
2. Lehen minutuak erabiltzea aurreko elkarriketari buruz hitz egiteko.
3. Bezeroen ikuspuntuak konektatzen saiatzen da.
4. Bila itzazu iradokitzen joan daitezkeen patroiak, eta azter itzazu zure taldearekin hiru "bidaia"-erronden ondoren egiten duzun sintesia.



*Laster ikusiko gara...*



*Aurrera!*